

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Irailaren 7ko 472/2021, ebazpenaren laburpena, "sailkatutako eraikinak birgaitzeko eta eraikinak apaintzeko" dirulaguntzen deialdia 2021

BDNS(Identif.): 583327

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/583327>) eta (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira Barrundiako udalerrian kokatutako etxebizitzaren baten jabe diren eta ohiko bizilekua bertan duten pertsona fisikoek, baita maizterrek eta beste-lako tituluak dituztenak ere.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Honako hauen finantzaketa:

- Etxebizitzak birgaitzeko.
- Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean monumentu gisa sailkatuta dauden eta kulturako erabiltzen diren eraikinak birgaitzeko.
- Udalerriko eraikinen fatxadak konpontzeko.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 29an egindako batzarrean, sailkatutako eraikinak birgaitzeko eta eraikinak apaintzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 2.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 1522.780.000.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2021eko abenduaren 30era arte izango da.

Ozaeta, 2021eko irailaren 15a

Alkate-udalburua
IGOR MEDINA ISASA